

Arrakasta handia izan du Kulturgintzaren Transmisioak: 54 lagunek egin dute aurrematrikula bertan

2007/05/20

Dagoeneko **54 lagunek** egin dute aurrematrikula Euskal Kulturgintzaren Transmisioa izeneko graduondoko ikastaroan. Hala ere, antolatzaileen ustez, guztira **70-75** lagun izan daitezke matrikulazio epea amaitzen denean, badakite-eta oraindik jende dezente dagoela ikastaroa egiteko asmoarekin.

Joan den otsailaren 1ean **Arteola** elkarteak eta **HUHEZI** fakultateak Bilbon aurkeztu zuten graduondoko ikastaroa. Horrek abiapuntu hartuko du zer esperientzia izan duen **euskal kulturgintzak XX. mendean**, asmoa du-eta berau transmititzeko bihar-etziko kultura arduradunei.

Helburuak

Ikastaroaren helburua da **corpus** batean biltzea euskal kulturgintzari buruzko jakintza, barreiatua dago-eta, eta belaunaldi gazteei transmititzea. Halaber, ikusita zelako desafioak dituen euskal kulturgintzak, asmoa da **formazio multifokala eta praktikoa** egitea. Hori guztia **arituak** eta **adituak** emango dute.

Edukiak

Formazioaren edukia hiru bloketan banatzen da:

1. Formazio teorikoa: adituak mintzo
2. Testigantzen bidezko formazioa: arituak mintzo
3. Hausnarketa eta ekoizpena: oro mintzo

Irakasleak

Irakasleen artean honako izen handi hauek aurkituko ditugu: **Benito Lertxundi, Xabier Lete, Bernardo Atxaga, Mari Jose Olaziregi, Jose Mari Sors, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Mariasun Landa, Joseba Zulaika, Juan Antonio Urbeltz, Jose Angel Irigaray** eta **Fermin Muguruza**, besteak beste.

Informazio teknikoa

Izen ematea: 2007ko otsailaren 1etik apirilaren 30era.
Matrikula: 2007ko maiatzaren 15etik ekainaren 8ra. Plaza librerik egonez gero, uztailean beste epealdi bat zabalduko da matrikulaziorako.
Hasiera: 2007ko irailean
Graduondokoaren Ordutegia/egutegia: astearte arratsaldetan.
Zenbatekoa: 1.900 €
Informaziorako eta izena-emateko telefonoa: 943 714 157

